

IRAKI ERASOTZEKO ASMOA. Arma programaren argibideak begiratzen hastearekin batera, ikuskatzeak areagotu dira



Arma ikuskatzaileen auto bat Al Kaimgo lantegi batera iristen, non lehen uranioarekin lan egiten zuten, Bagdadetik 400 kilometrora.

NOBEL BAKE SARIA

Gerraren aurka agertu da Jimmy Carter, Oslon izaniko ekitaldian

Jimmy Carter, Ameriketako Estatu Batuetako presidentea izandakoa (1976-1980) Iraki gerra egitearen aurka mintzatu zen atzo Oslon (Norvegia), eman dioten Nobel Bake Saria eskuratzean. Etxe Zuriko egoiliar ohiak ohartarazi zuen, halaber, gatazka hori piztean «ondorio tamalgarriak» egon daitezkeela.

«Gogoan atxiki behar dugu gaur egun zortzi potentzia nuklear badaudela gutxienez munduan zehar eta hauetatik hiruk euren auzoezkin tentsio biziak dauzkate» adierazi zuen lehendabizi Carterrek. «Arma nuklearraren jabe diren herri indartsuenen kasuan, gerra alde aurrez piztea ontzat jotzeak ondorio lazarriak eragin ditzakeen eredu bat finkatuko luke», iritzi zion estatubatuar presidentea ohiak.

Carterrek argi esan zuen, gatazkak modu baketsuan konpondu behar liratekeela eta horretarako gune egokiena Nazio Batuen Erakundea dela.

Kexuak eta ika-mikak sortu ditu AEBek Bagdaden txostena lehen eskuratzeak

Iraken iritziak, «NBERen historian aurrekaririk gabeko lapurreta» egin du Washingtonek

Erredakzioa | DONOSTIA

Irakel Nazio Batuen Erakunde-ari emandako bere armamentu programetako argibide txostena Ameriketako Estatu Batuen esku geratu zen New Yorkerat igandean heldu eta hiru orduren buru eta Washingtonek 11.807 orriko dokumentu mar-
dul hori lehendabizi erdietsi izanak, ika-mika eta ihardukitze batzuk eragin ditu.

Bagdaden eman ostetik, txostena eskuetan izan zuen lehendabizikoa, hatik, Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluaren gaur egungo presidentea Alfonso Valdivieso koloniar enbaxadorea izan zen. Honek, baina, AEBen esku utzi zuen Washingtonek txosten honek «fotokopiak egiteko baliabide tekniko eragin-korrenak zituelakoan». Valdi-

viesok ziurtatu zuen hori egin zuela Segurtasun Kontseiluko beste lau kide egonkorrek diren Erresuma Batua, Errusia, Frantzia eta Txinaren baimena ukan eta gero.

Kolonbiako ordezkariak zehaztu zuen, halaber, Segurtasun Kontseiluko kide egonkorrek ahal bezain laster jasoko dutela

«DATU MINBERAK»

Bagdaden txostenean esku guztietan ezarri behar ez liratekeen «datu minbera» batzuk balirateke

Irakel moldatu-tako txostenaren eduki osoaren ale bat eta egitura honen beste hamar partaideek, berriz, eduki ez oso bat besterik ez dutela eskuratuko. Valdiviesok azaldu zuen kide egonkorrek dute-

la jokaera hori ebatzi, Bagdaden txostenean liratekeen «datu minbera batzuk» gehiegi zabaldu ez daitezkeen. Aditu zenbaiten arabera, «datu minbera» hauen artean egon daitezke Iraki, NBek 1991n jarri zion bahimenduagatik, debekatutako

materialak ustez saldu dizkion herri batzuen izenak —Europa ekialdekoak batik bat—.

Irakel NBERen esku ezarritako txostenaren eduki ez osoa jasoko luketenen artean dago Siria eta honek argibideak mugatze honez gain, nahiko gaizki hartu zuen AEBek lehendabizi eskuratu izana Bagdaden dokumentua. NBERen Damaskoko enbaxadore Mikhail Wehbe gogor salatu zuen egitate hori. «Erabaki hau Segurtasun Kontseiluaren logika eta printzipio guztien aurka doa eta honen batasuna bera ere kolokan jartzen du» aditzerat eman zuen Siriako ordezkariak. Alabaina, Kofi Annan NBEReko idazkari nagusiak hotz eta motz erantzun zi-on, esanez: «Segurtasun Kontseilua jaun eta jabe da kontuotan eta eabazten duenarekin konformatu behar da».

Washington eta Londres prest azaldu dira berriro gerrarako

Bagdad behintzat ez da erabaki horrekin konforme agertu eta

gogor salatu zuen atzo Washingtonek lehendabizi eskuratu izana bere armamentu programen txostena. Bagdaden arabera, «Nazio Batuen historian aurrekaririk gabeko lapurreta» egin du Washingtonek.

Irakelko Atzerri Ministerioak atzo zabalduetako oharra zioenez ere, AEBek Segurtasun Kontseiluaren jarduneko presidentea «txostena ematera behartu egin dute, iragan azaroan Kontseiluko kide guztiek hitzartutako akordioa hautsita».

BOST IKERKETA

UNMOVIC eta AIEAko ikuskatzaileek Iraken zehar banatutako 5 toki ikertu zituzten denbora berean atzo

Bagdaden irudiko, «estatubatuarren indarrezko jokiera horren helburua da txostena manipulatzeko gisan».

Irakelko agintarien adierazpen hauen aurretik, dena den, Washingtonek azpimarratu zuen Bagdaden moldatutako txostenaren alderat «oso sineskaitz» geratzen dela. Donald Rumsfeld Defentsa idazkariak azaldu zuenez, dokumentuaren edukia egiaztatzeke «egunak edo asteak ere behar-

ko dira» eta ohartarazi «gauza batzuk ez aipatzea Irakel hartutako konpromisoaren hauste bat izango litzateke». Horrelako kasu batean, AEBek aldarrikatu dute jadanik ekitaldi militar bat ezinbestekoa litzatekeela. Era berean, Tony Blair lehena ministro britainiarra esan zuen atzo «inozoa» litzatekeela pentsatzea Bagdaden NBEReko Segurtasun Kontseiluaren 1.441 ebazpena beteko duela eta ohartarazi zuen Erresuma Batua eta AEBak Iraken aurka ekiteko prest daudela, beste ebazpenik egon gabe ere».

NBEReko UNMOVIC, Egiatzen, Ikuskatze eta Kontrolerako batzordeko eta AIEA Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentziako ikuskatzaileak Iraken zehar banatutako bost toki ezberdinetan ikerketak egiten ibili ziren atzo. Ikuskatzaileak joan ziren Ashakateko uranio meategiaren, Al-Tuwaitako konplexu nuklearraren, Al-Furrateko industrialdearen, Abu Ghraibeko laborategi bakterio-logikoaren eta Ibn Al Heizameko instalazio militarren ikuskatzen. Toki hauek guztiak ikuskatuak izan ziren jada, 1990eko hamarkadako ikerketetan.